

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Informazio estatistikoa eskuratzeko eta komunikatzeko bitarteko egokiak aukeratu edo sortu, haien egokitasuna aurrez emandako irizpideen arabera baloratu eta bitarteko horiek ematen duten informazioa interpretatu, proposatutako galderei erantzunez.	<p>1.1 Emandako datu-taulak aurrez emandako irizpideen arabera hautatzea, egokitzea eta sortzea, eta haietatik informazioa ateratzea.</p> <p>1.2 Helburuaren baitan, grafiko estatistiko egokiak hautatzea, egokitzea eta sortzea, eta haietatik informazioa ateratzea.</p> <p>1.3 Informazio estatistikoaren onargarritasuna aztertzea, okerrak identifikatuz eta arazoituz.</p>
2. Grafikoek emandako informazioa deskribatu eta konparatu, hizkuntza matematikoa zainduz eta ezaugarri zehatzen behaketa eginez.	<p>2.1 Grafikoak deskribatzea, hizkuntza matematiko zehatza baliatuz.</p> <p>2.2 Grafikoak konparatzea, hizkuntza matematiko zehatza baliatuz.</p>
3. Banaketa estatistikoaren zentralizazio-parametroak kalkulatu eta ondorioak atera, beharrezkoa denean IKT baliabideak erabiliz, eta indizeak erabili ehunekoekin erlazioentzatutako eguneroko problemak ebazteko.	<p>3.1 Banaketa estatistikoaren zentralizazio-parametroak kalkulatzeko eta ondorioak ateratzea, maiztasun-taula zein datu-zerrenda batetik abiatuta, baita kalkulu-orrari ere.</p> <p>3.2 Zatiak, ehunekoak eta indizeak baliatzea eguneroko problemak ebazteko.</p>
4. Magnitudeen arteko hainbat erlazio identifikatu, funtzio linealak, afinak eta alderantziz proportzionalak bereiziz eta, horiek baliatuz, eguneroko problemak ebazteko.	<p>4.1 Lehenengo mailako funtzio polinomikoei eta alderantzizko proportzionaltasun-erlazioei dagozkien funtzioak identifikatzea eta haien adierazpenak erlazioentzatzea eta erabiltzea.</p> <p>4.2 Lehenengo mailako funtzio polinomikoei eta alderantzizko proportzionaltasun-erlazioekin lotutako problemak ebaztea, problema ulertuz, ebazpena planifikatuz eta gauzatuz eta emaitzaren onargarritasuna justifikatuz eta hura egoki komunikatuz.</p>